



**KURUTZIAGA
IKASTOLA**
BIZITZEKO HEZI



50. urteurrena:
*memorian
gordetzekoa*

Etxekotzea:
*umea, familia eta
ikastola*

Gotzone Duñabeitia:
*Zuzendari pedagogiko
berria*

AURKIBIDEA

- 04** | **Gotzone Duñabeitia:**
zuzendari pedagogiko berria



- 08** | **Etxekotzea**

- 10** | **50.urteurrena**



- 14** | **Bazkalosteko proiektua**



- 16** | **Eleanitz: hizkuntza proiektu integrala**

- 17** | **Elkarmaker**



- 18** | **Orientazio departamentua**

- 19** | **Gorputza eta hezkuntza**

- 20** | **Artezkarrizta Batzordea**

- 21** | **Jon Elorrieta: Ikastolako presidentea**

Argazkiak: Lehior Elorriaga (50. urteurreneko orrialdei dagozkienak izan ezik).

Kurutziaga Ikastola Galtzaretza kalea, 13
Durango (Bizkaia)

Tel: 94 620 08 22

www.kurutziagaikastola.eus



**KURUTZIAGA
IKASTOLA**

BIZITZEKO HEZI

Hezkuntza proiektu batek batzen duen komunitatea da gurea. Nortasun propioa duen hezkuntza proiektua eta nortasun propioa duen komunitatea. Gure seme-alaben, gure ikasleen hezkuntzarekiko eta formakuntzarekiko kezka eta desioak batzen gaitu. Badugu ardatz bat, hizkuntza batek eta herri baten kulturak osatua, eta haren bueltan hainbat hizkuntza, herri eta kulturek osatutako unibertsoa. Elkarbizitzan eta berdintasun balioetan hezitako pertsonak itzuli gura dizkiogu unibertso horri, bizitza bizitzeko prest.

Berrogeita hamar urte ondo paseak dituen proiektu gaztea da Kurutziaga Ikastola. Joan zen azaroan berrogeita hamargarren urteurreneko ekitaldi nagusian bizitako momentu ederrak oraindik gogoan ditugula, jakitun gara gure indarra etorkizunean dagoela. Bihar ikastolan hasiko diren ume horiek izango dira, etzi, gurean ikasitakoarekin munduratuko direnak. Ardura handia da hori eta jakitun gara horretaz. Horregatik saiatzen gara egunero ikasten, hobetzen, berritzen...


Etorkizunak arduratzen gaituelako, datozen lau urteotarako Plan Estrategikoa lantzen ari gara ikasturte honetan. Terminologia lehorra izan arren, azken finean, Kurutziaga Ikastola lau urte barru hobe zelan izan, eta gure hezkuntza proiektua zein baliabidez hornitu behar dugun ari gara irudikatzen. Hori horrela izango bada komunitate aktibo eta partehartzailea izatea ezinbestekoa izango da. Hortxe dago gure funtsa eta indarra. Iraganetik gaur arte ekarri gaituena eta etorkizunera eroango gaituena.

Seguruasko ez gara ezer asmatzen ari. Gure seme-alabentzat eta gure jendartearentzat ahalik eta etorkizunik justuena eta onena da gura duguna. Horregatik hezi gura ditugu bere inguruarekin eta ingurukoengandik ikasi eta bizitzari konfiantzaz ekingo dioten pertsonak. Horixe da gure lana: Bizitzeko hezi.

GOTZONE DUÑABEITIA KINTANA

Kurutziagako Zuzendari Pedagogikoa

Gotzone Duñabeitia Kintana (lurreta 1970)
Kurutziaga Ikastolako Zuzendari Pedagogikoa
da 2018/19 ikasturtea hasi denez gero.
Psikopedagogian lizentziatua, Magisteritza eta
Gizarte Hezkuntzako tituluduna da ikasketaz.
Kurutziagako ikasle ohia, ikastolan dihardu
lanean 1997tik. Azkeneko urteotan Orientazio
Departamenduaren arduraduna izan da.

A portrait of Gotzone Duñabeitia Kintana, a woman with short dark hair and glasses, smiling. She is wearing a black jacket over a grey patterned top and a grey scarf. The background is dark and out of focus.

*“Bere inguruarekin eta
ingurukoekin ikasi eta
bizitzari konfiantzaz
ekingo dioten pertsonak
hezi behar ditugu.”*

Zer dela eta sortu da Zuzendari Pedagogikoaren kargua?

Zuzendari Pedagogikoaren kargua sortzearen arrazoia guztiok gauzatzen dugun hezkuntza jardunaren garapen eta hobekuntza prozesuaren baitan kokatuko nuke nik. Kontua da gure ikastola dexente handitu dela urteotan, eta helburu metodologiko eta pedagogiko berriek gure antolaketa egitura berri eta eraldatzera eraman gaituzte. Hezkuntza proiektuaren ikuspegi orokor eta bateratu bat bermatzeko sortu da postu hau.

Zeintzuk dira Zuzendari Pedagogikoaren funtzioak?

Labur esanda, gure hezkuntza proiektuaren garapen bateratu eta kohesionatua bideratzea. Berrikuntza pedagogikoari dagokionez, gizarte premiek zein garapen propioak eskatzen duenari erreparatuz, iparra zaindu eta zuzentzea. Baina, jakina, hori ez da pertsona bakarraren lana, talde profesional osoarena baizik.

Zeuk aukeratu zaituzte zeregin horretarako.

Eta ez da ardura makala! Ikastolan egin dudana ibilbide profesionalean bete ditudan ardura desberdinek izango zuten zerikusia erabaki horretan. Garai batean Haur Hezkuntzako arduradun moduan aritu nintzen, eta ikastolak bost urtez partzialki liberatu ninduen, besteak beste, Haur Hezkuntzan gauzatu den aldaketa pedagogikoa lantzeko. Gero, beste urte mordoxka bat Orientazio Departamenduan eman ditut, LHrako zein DBHrako aholkulari eta laguntza irakasle gisa. Guzti horrek eta pilatutako esperientziak, ikasgeletan egiten denari buruzko ikuspegi orokor bat izaten lagundu dit: materiala eta edukiak sortzen, antolaketan, laguntzak bideratzen...

Haur Hezkuntzako eraldaketa aipatu duzu, iaz erai-kin berrituarekin bisualizatu zena.

Bai, iaz ikusgarri bihurtu zen eta orain garapen pedagogikoz jantzi behar dugu. Nire ustez, hezkuntzan ordena hurrengoa da: lehenik aurrelana, gogoeta eta hausnarketa; ondoren jarraipena eta saiakera; eta, azkenik, berrikuntza.

Berrikuntza norbere praktika erreflexibotik hasten da. Horri praktika pedagogikoarekin eman behar zaio jarraipena, eta prozesu horren emaitza izango da hezkuntza proiektuan txertatuko dena. Izan ere, aldaketa txiki bat gauzatzeko nahikoa da irakasle talde baten proposamena eta ohiko kudeaketaren babesa. Baina etapa bati eta, zeresanik ez, ikastola osoari eragingo badio, prozesuak denbora behar du. Hor dago zuzendaritza pedagogikoaren zeregina.

Eraldaketa prozesuetan murgilduta zaudete, baina zeintzuk dira etorkizun hurbileko erronkak?

Etapen arteko jarraikortasunari erreparatuz, Lehen Hezkuntza da momentuko erronka. Ikasmaila eta ikasle gehien dituen etapa da, eta gainera, bi isuritako teilatu bat dela esan daiteke: badu ziklo bat Haur Hezkuntzatik gertuago dagoena, eta beste bat, aldiz, DBHtik. Beraz, etapa honetan garatu nahi ditugun lan lerroak nolabait baldintzatuta datoz beste bi etapetatik. Haur Hezkuntzatik dakargun berrikuntza pedagogikoarekin lotunea badakigu non dagoen. Bestalde, LH5 eta LH6 mailetan EKI garatzen hasi gara. Beraz, sei urte hartzen dituen etapa hori begi bat gora eta bestea behera begira dugula eraldatu behar dugu.

Argi dagoena zera da, oinarritzko hezkuntzan ari garela eta garrantzitsuena umeen ongizatea, elkarbizitza osasuntsua, eta berezko duten jakiminetik tira egitea dela. Hori da profesionalok gogoan izan behar duguna. Espazioan eman beharreko aldaketak eta erabili beharreko baliabideak gero datoz.

“Oinarria sendo izatea eta norbere jardunarekin kritikoa izatea da berrikuntzaren gakoa”



“Errealitate kulturala, ikasteko erak eta gaitasunak... Aniztasun horretaz ari gara inklusioaz ari garenean. Gure hezkuntza esparruak kontuan hartu behar du hori”



HH eta LH aipatu dituzu. Zer diozu DBHri buruz?

DBHko berrikuntzaren lan lerroa material curricularraren eskutik etorri da, EKI proiektuarekin. DBHko irakasleek lau urte eman dituzte EKIn inplantazioan eta esperientziak lagundu die urterik urte aldaketak eta egokitzapenak egiten. Gaur egun badago ezagutza orokor bat, eta orain dagokiguna EKI ebaluazio marko berrian murgiltzea da. Beharbada aldaketa fisiko bat bezain agerikoak ez diren aldaketak, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoak.

Hezkuntza proiektuan zein leku dute familiak?

Hezkuntza komunitatea garen heinean ezinbestekoa da familien parte-hartzea gure hezkuntza proiektuaren garapenean. Familien aldetik gogoia sumatzen dut hezkuntza prozesuan parte hartzeko, eta hori ona da. Oso guraso prestatuak ditugu eta alor askotan kezka konpartituak dira. Kontuan hartu behar da, baina, ikastolak berak, lehenago azaldu ditudan arrazoiengatik, baduela bere erritmo propioa eta aldaketak ezin direla egun batetik bestera eman.

Edozelan ere, gure mezua hobeto komunikatzeko ahalegin handiagoa egin behar dugu eta, era berean, gurasoen parte-hartzerako kanalak sortu behar ditugu. Ikastola proiektuaren balio erantsia pertsonak gara: langileak, ikasleak eta familiak. Horrela heldu gara berrogeita hamar urte betetzera, eta horrek izan behar du bidea. Ikastola guztiok egiten dugu eta guztion artean eramateko erantzukizun partekatua dugu.

Gaur egun hezkuntza inklusiboaz asko hitz egiten da baina zer dago kontzeptu horren atzean?

Horren atzean dagoena da gure ikasgeletako errealitate anitza. Errealitate kulturala, ikasteko erari dagokiona, gaitasunei dagokiena... Aniztasun horretaz ari gara inklusioaz ari garenean. Gaur egun irakasleok badakigu ikaskuntza prozesuetan motibazioak, emozioak eta seguru sentitzeak duen garrantziak. Eskola-bizipen baikorrak eta arrakastatsuak

izan behar dituzte ikasle guztiak, eta hori zaindu egin behar dugu. Bai espazioen antolaketa eta diseinuan, bai hezkuntza jardunean, eta baita harremanetan ere.

Badakigu baita inteligentzia ezberdinak daudela, hau da, informazioa eta ezagutzak prozesatzeko gaitasun eta trebezia ezberdinak, eta gure hezkuntza esparruak hori kontuan hartu behar du. Kasu batzuetan ahozkotasanaren arloa indartuz, beste batzutean sostengu bisuala emanez, teknologia berrien erabilpenarekin ... Hezkuntza inklusibo batek horiek guztiak hartu behar ditu kontuan, eta horretan ari gara.

“Familien partaidetza sentimendu hori beti izan behar dugu presente, hor dago gure balio nagusia”

Eta zein da hezkuntza proiektu honen azken helburua?

Berrogeita hamargarren urteurreneko leloak dioten moduan, bizitzeko hezte. Azpi-mezuak ahaztu barik: euskaraz bizitzeko hezi; berdintasunean bizitzeko hezi; libre bizitzeko hezi. Azken finean, Haur Hezkuntzari buruz ari garenean, eta diogunean umeari segurtasun afektiboa eta bizipen aberatsak eskaini behar dizkiogula, nik erabat lotuta ikusten dut DBHko irteera profilarrekin. Ikasteko motibazioaz, ikaskuntza aktibo eta kooperatiboaz, nortasunez eta autonomiaz ... hau da, bizitzarako kompetentzietan trebatu behar ditugula gure gazteak.

Bere inguruarekin eta ingurukoekin ikasi eta bizitzari konfiantzaz ekingo dioten pertsonak hezi behar ditugu. Horregatik, argi daukat ikastolaren hezkuntza proiektuak haur hezkuntzatik hasi, eta DBHko azkeneko mailara arte doan ibilbide logikoa eskaini behar duela.



“Konfiantzazko harreman hurbila da gakoa”

Uxuri Gallastegi Eguren
Haur Hezkuntzako etapa arduraduna

ETXEKOTZEA

Umeak ikastolarekin duen lehenengo harremanaz ari gara. Umeak, gurasoek eta irakasleek lehenengoz topo egiten duten aro horretaz. Helduon ohiko bizi-martxarekin talkaren bat edo beste eragiten badu ere, berebiziko garrantzia du umea ikastolaratzea esperientzia positiboa izan dadin. Etxekotzea deitzen diogu aro horri Kurutziaga Ikastolan.

Zer da zehazki Etxekotzea?

Umeen hezkuntzan parte hartzen dugun pertsona guztion arteko loturak ezartzea. Umea, familia, eta hura zainduko duten irakasleen arteko konfiantzazko harreman hurbila lortzea. Aldebiko hartuemana eraikitzea. Labur esanda, etxeko bihurtzea.

Familia ere inplikatzeko duen prozesu bat da.

Jakina. Egokitzapenaldi honetan pixkanaka ezagutu behar dugu elkar. Familiak ikastola bera, beste heldu batzuk eta harremanak sortzeko eta arreta emateko beste eredu batzuk ezagutu behar ditu. Hezitzaileok berriz, gure gertutasuna adierazi behar diogu familiari gure artean harreman berriak eraiki ahal izateko. Familiarekin komunikazio estua eta konfiantzazkoa izatea oso garrantzitsua da.

Eta, erdigunean, umea bera.

Beti. Hezitzaileon eta umearen artean lotura afektibo esanguratsua lortzea da helburua. Umearen premia oinarrizkoenei begirunez erantzun behar diogu, horixe behar baitu seguru sentitzeko. Atsedeen erritmoekiko errespetua, elikadura, banakako arreta... Lortu behar dugu etxetik ikastolarako trantsizio hori leuna izatea, horretarako testuinguru seguru, atsegin eta erakargarriak eskainiz umeari.

Etenik ez duen lan-lerroa da Etxekotzearena.

Halaxe da, bai. Hezitzaileon begirada dago batetik, familiarena bestetik, eta umearen esperientzia erdian. Horiek guztiak kontuan hartu eta hausnartu ostean, hobekuntzak eta berrikuntzak sartzeko prest eta adi egon behar dugu beti profesionalok.

“Umea, familia, eta hura zainduko duten irakasleen arteko konfiantzazko harreman hurbila lortzea da etxekotzearen helburua”

Hausnarketa horren ondorioz etorri da “Ikastola ezagutu” jarduera.

Irailean, ikasturte hasierarekin egin ohi dugu. Etxekotzearekin batera, bi arratsaldetan ikastolako atea zabalik izaten dituzte familiak, konfiantzazko harremanak eraikitzen hasteko, umearentzako ezaguna bihurtuko den espazio hori familiak ere konpartitu, ezagutu eta bizi dezaten. Gaur egungo espazio fisikoak haizea ematen dio umeari askatasunean aritzeko eta gura dugu esperientzia hori familiak ere bizi dezan.



ZERK ADIERAZTEN DU UMEA ONDO ETXEKOTU DELA IKASTOLARA?

- Umea ikastolako espazioan eta irakasleekin seguru eta eroso dagoela ikusteak.
- Zenbait aldaketa eginda ere lasai jarraitzen duela sumatzeak.
- Jolasteko gogoaz azaltzeak.
- Gainontzeko umeekin eta helduekin gogo onez harremanetan sartzeak.
- Zer nahi duen eta zer behar duen beldur gabe adierazteak.
- Ume bakoitzak bere izaera, segurtasuna, motibazioa ... azalerrateak.
- Nork bere berezitasuna eta banakotasuna agertzeak.
- Gelatik lasaitasun osoz sartu eta irteteak.
- Eguneroko une desberdinetan naturaltasunez parte hartzeak.



50. urteurrena

Urte berezia izan da 2018a Kurutziaga Ikastolako kideontzat. Berrogeita hamar urte bete ditugu. Gure egunerokoak eta hezkuntza-jardunak berak orainaldia eta geroa izan ohi ditu jomugan, baina ezinbestekoa da lantzean behin atzera begiratu eta nondik gatozen ikustea. Orain berrogeita hamar urte Kurutziaga Ikastola sortu, bultzatu, eraiki eta, egunik egun, edukiz bete zuten haiek merezi zuten, zalantzarik barik, gure aitortza. Baina, seguruasko, geuri, gaur egun Kurutziaga Ikastola osatzen dugun kideoi, egin digu mesederik handiena ospakizun urte honek. Komunitate baten parte izatearen harrotasuna eta poza sentitu dugu, eta indartu egin gaitu.

Eskerrik asko bihotz-bihotzez guztioi. Atzokoei eta gaurkoei. Jarraitu dezagun biharkoengatik.



Martxoak 1 **LANGILEEI OMENALDIA**

Artean udaberria hasteko zela, Kurutziagako langile izandakoei egin genien dei. Irakasle, sukaldari, zuzendari, mantenimenduko... Ikastolaren proiektua euren eguneroko lanarekin posible egin izana eskertu genien. Hori eta gehiago merezi zuten.



Maiatzak 3 **GURASOEI OMENALDIA**

Kurutziaga Ikastola ez zen posible izango hasierako urte haietan hainbat eta hainbat gurasok egindako ahalegin pertsonal, kolektibo eta ekonomiko barik. Norbere umeak ikastolara erotea hautu konprometitua zen garaiko jendea omendu gura izan genuen. Haiek barik gaur ez geundeko gauden lekuan.



Azaroak 10 **EKITALDI NAGUSIA**

Mila eta berrehun lagunetik gora batu ginen Landakogunean. Ikasle, irakasle, guraso, lagun... Inoiz izandakoak eta oraindik ere bagarenak. Goizetik Durangoko kaleak girotu genituen, elkarrekin bazkaldu genuen eta... zoriontsuak izan ginen.









Bazkalosteko proiektua

Kurutziaga Ikastolaren hezkuntza proiektuaz ari garenean osotasun bati buruz ari gara. Hezkuntza proiektuak, eskola orduz harago, gure ume eta gazteek ikastolan ematen duten denbora eta bertan burutzen dituzten ekintzak hartzen ditu kontuan. Ondorioz, ikastolan eskaintzen diren zerbitzuek ere gure hezkuntza proiektuaren balioekin bat egin behar dute.

Azkeneko hamarkadan gorakada handia izan du ikastolan bazkaltzera geratzen den ikasle kopuruak. Gizarteko joerek eta lan munduko premiek hala eraginda, geroz eta gehiago dira goizean goiz ikastolan sartu eta, gutxienez, arratsaldeko eskola orduak amaitu arte bertan egoten diren ikasleak. Hainbat urtetan irakasleen, jantokiko langileen eta gurasoen kezka izan da bazkalostean hasi eta arratsaldeko eskola orduak hasi bitarteko denbora tarte hori. Adinaren eta jantokiko ordutegiaren arabera luze jo eta, tarteka, elkarbizitzan talkak sortu ditzakeena.

Orain ikasturte batzuk aisialdi jarduera ezberdinak eskaini ziren kanpo zerbitzuen bitartez. Baina eskaintza horrek, ordainpekoa izanik, ikasle kopuru txiki bati erantzuten zion eta ez zen, ez justua, ezta eraginkorra ere.

“Bazkalosteko tarteak elkarbizitza eta aisialdi une eta gune hezigarria izan behar du”

Une eta gune hezigarrien bila

2006-17 ikasturtean ikastolako Zuzendaritzak eta hezkuntza komunitateko eragileek (irakasle, guraso, jantokiko langile...) kezka konpartitu horri erantzuna emateko ardura hartu zuten. Hau da, Kurutziagak eskaintzen zuen zerbitzu bati bere

hezkuntza proiektuarekin bat zetorren balio erantsia ematea: bazkalosteko tarte elkarbizitza eta aisialdi une eta gune hezigarria izatea.

Etapetan egindako hausnarketa eta lanketa prozesu batzuen ostean, bazkalosteko proiektuaren une eta gune hezigarrien oinarriak zehaztu ziren.

-Aisialdi esparru askea izan behar zuen eta, aldi berean, **adin tarte ezberdinen partaidetza** eta **elkarbizitza positiboa** ahalbideratuko duena.

-Adin tarte bakoitzaren interesei erantzunez, jarduera **proposamenak anitzak, kooperatiboak eta inklusiboak** izan behar zuten.

Elkarlana: Kurutziaga, Berbaro eta Ausolan

Proiektua aurrera eramateko bidelagunak beharrezkoak ziren. Batetik jantokiko langileen (Ausolan) inplikazioa ezinbestekoa zen. Zuzenki Kurutziagako langileak izan ez arren, beraiek ziren, nagusiki, bazkalosteko zaintzaren arduradunak. Berbaro eta Ikastolaren arteko lankidetzak ere aspaldikoa da eta aisialdiari dagokionean esperientzia handia du euskara elkarteak.

2017-18 ikasturtean proiektu pilotoa

Iazko ikasturtearen azkeneko hiruhilekoan jarri genuen martxan proiektu pilotoa. Jakitun ginen proiektua konplexua

zela, ume eta gazte kopuru handia hartzen zuelako bere baitan, eta ezin genielako guztiei hasieratik eta aldiberean erantzun. Apiriletik ekainera arteko tarte hori behaketarako, egin beharreko egokitzapenetarako eta hutsegiteak zuzentzeko erabili genuen.

“Ikasleen parte-hartzea eta euren arteko harremanak sendotzea dira helburu nagusiak”

2018-19 ikasturtean Bazkalosteko proiektua martxan
Aurtengo ikasturtean San Fausto jaien ostean ekin genion proiektuari bi helburu nagusirekin: ikasleen parte-hartzea bermatzea eta ikasleen arteko harremanak sendotzea, betiere,

inklusioa, hezkidetzatza, elkarbizitza eta jolas askea oinarri hartuta. Astean hiru egunez eskaintzen da geroztik parte hartzeko aukera, astelehen, astearte eta ostegunetan 12:45-14:15 orduetegian. Zortzi gune egokitu ditugu asmo horrekin:

- HH Gunea
- LH Kirolgunea
- LH Jolasgunea
- LH Sormen eta adierazpen gunea
- LH Gune lasaia
- DBH Ekintza
- DBH Kirola
- DBH Lasaia

Jakitun gara ez dela proiektu burutu bat. Beharko dituela oraindik ere egokitzapenak eta ikasleen beraien hautuek adieraziko digutela, seguruasko, zein den jarraitu beharreko bidea. Horretan ari gara.



Bazkalosteko proiektuko hezitzaile taldea





Eleanitz: hizkuntza proiektu integrala

Eleanitzasunarekiko ardura ez da berria ikastoletan. Aspaldi oharitu ginen europar hiritar izateko ikasle eleanitzak behar genituela. Eleanitz proiektuak 1991an eman zituen lehenengo pausoak, ikastola gitxi batzuetan hasieran, horretarako beren beregi sortutako material propioa erabiliz.

Zer da Eleanitz?

Euskara ardatz duen hizkuntzen planteamendu integratuari deitzen diogu Eleanitz Proiektua. Haur hezkuntzako materialaren sortzailea den Artigalek askotan dion bezala “hizkuntza bat, gure esperientziak elkarbanatu eta zerbait konkretua burutzen dugunean ikasten da”. Beraz, erabiltzen dugun metodologiak, atzerriko hizkuntzaren sarrera goiztiarra bermatzeaz gain, gelan lantzen ditugun istorioen bitartez, esperientziak elkarbanatzeko premia sortzen die ikasleei.

Adinean gora egin ahala, istorio horiek proiektu txiki bilakatzen dira. Garai horretarako atzerriko hizkuntzan jasotako *input* guztiarekin, ikasleak ahoz zein idatziz harremanak ingelesez mantentzeko gai izatea da helburua.

Zertan oinarritzen da metodologia hori?

Gela barruko hizkuntza, ikasleak ikasi beharreko hizkuntza izango da, honek ikaslearengan hizkuntza hori erabiltzeko premia sortzen duelarik pixkanaka-pixkanaka. Ikasleen interesa pizteko, ama hizkuntzan egiten den bezala, ipuinen

“Atzerriko hizkuntzaren ikasketa ohiko hezkuntza jardunean integratuta dagoen elementua da”

bitartez hasten gara erakartzen ikasleak Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen urteetan.

Ingelesaren sarrera ez da aparteko ikasgai moduan egiten, beraz.

Ez. Ingelesaren kasuan lau urterekin ekiten diogu. Haur Hezkuntzan ingeleseko saio zuzenez gain, hizkuntzaren murgiltze naturala sustatzeko, irakasleak (edota Mrs.-ek) umeekin beraiekin elkarbanatzen dituzte espazio itxiko jolas librea zein jolasaldi sasoiak. Hau da, atzerriko hizkuntzaren ikasketa ez da ohiko hezkuntza jarduna eteten duen elementu bat, integratuta dagoena baizik.

4-16 adin tartean, hizkuntza ikasgai isolatu gisa ikastetik, egoera erreal baten aurrean, baliabideak bilatu eta erabiltzera, eta ikasi duena egoera berrietan aplikatzera iritsiko da ikaslea.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan frantsesa ikasteko aukera ere badago.

Bai, eta ikasketa prozesu horren ondorioz, aukera suertatzen zaienean, hizkuntza berri bat ezagutzea ez zaie horren arrotza egiten, metodologia ingelesa ikasteko erabili duten ildo beretik doa-eta. Ikasleak gutxieneko batzuetan frantsesez komunikatzeko gai izan daitezen bermatzea du oinarri Eleanitz Proiektuak.

Elkarmaker

Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak, Mondragon Goi Eskola Politeknikoak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako ekimena da Elkarmaker. Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleak, DBHko 3. mailakoak eta ingeniartzakoak lotzen dituen proiektu batean. Mikel Eguren eta Idoia Sopelana teknologiako irakasleak dira proiektuaren arduradunak Kurutzia Ikastolan.

Nondik dator Elkarmaker ekimena?

Proiektu piloto bat da eta bere helburua da STEM ikas-arloen (Science, Technology, Engineering and Maths) bokazioa sustatzea. Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundu du diruz eta Euskal Herriko hainbat ikastola eta Mondragon Goi Eskola politeknikoak hartzen dugu parte bertan.

Zelan bideratu da prozesua halako adin tartea duten ikasleak proiektu berean aritzeko?

Ekimenaren beraren oinarrian dago elkarlana eta kooperazioa bultzatzea. Elkarlan horren barruan, bakoitzak bere funtzioa dauka. Kasu honetan LH3ko ikasleei zegokien euren ametsetako makina imajinatzea. Hainbat ideia aurkeztu zituzten eta ikasgela bakoitzeko bana aukeratu zuten. Sormen eta aukeraketa prozesu horretan presente egon ziren bai DBH3ko eta baita ingeniartzako ikasleak ere.

Zeintzuk izan ziren aukeratutako ideiak eta zelan landuko dira?

Pentsatuko duzenez, LH3ko ikasleen interesen arabera


dira hirurak ere: **litxarreriak eta izozkiak banatzeko makina, kortxo-kentzeko elektrikoa eta robot zerbitzaria**. DBH3ko ikasleek abendura arteko epea izan dute, taldeka, ideia horien maketa egiteko. Ideia bakoitzari dagokion maketarik egokiena aukeratu eta ingeniartzako ikasleen esku utzi dute abenduan. Hauek udaberririako prest edukiko dituzte prototipoak. Ikasturte bukaeran, aurkeztutako lanekin erakusketa bat egiteko asmoa dago.

Zelan baloratzen duzue orain artekoa?

Goiz da ezer baloratzeko baina, teknologia alorretik dagokigunez, gure ohiko planteamendua indartzeko balio izan digu Elkarmaker-ek. Hau da, "arazo" bat planteatzen diegu ikasleei eta euren prozedura bat jarraitu behar dute: informazioa bilatu, diseinatu, eraiki eta ebaluatu.

Bada, hori guztiori egin dute eta gainera, ingeniartzako ikasleek burutuko dute euren diseinatutakoa. Horri gehitu, tarteka-tarteka, LH3ko ikasleak bisitan etorri zaizkigula "euren ideia" zelan doan ikusteko. Esperientzia aberasgarria, dudarik barik.


Litxarrera banatzailea



Robot zerbitzaria



Kortxo-kentzeko elektrikoa





Orientazio departamentua

Sei lagunek osatzen dute Kurutzia Ikastolako Orientazio Departamendua. Maider Iturbe departamendu burua eta orientatzailea da. Estitxu Txarterina Lehen Hezkuntzako aholkularia da eta Oihana Etxeberria Haur Hezkuntzako. Gotzone Duñabeitiak orientatzaile akademiko lanetan dihardu eta Haizea Lazkano eta Ipar Abasolo Hezkuntza-laguntza espezialistak dira.

Zein da Orientazio Departamenduaren funtzioa?

Gure eguneroko jardunean bi esparru nagusi bereizten dira. Alde batetik, izaera orokorragoa duen aholkularitza lana, batez ere irakasleei eta gurasoei zuzenduta. Bestetik, izaera espezifikoa duen ikasleei zuzendutako hezkuntza jarduna. Hezkuntza jardunaren ikuspegi orokorra galdu gabe, etapa bakoitzaren xehetasunak ondo ezagutu behar ditugu eskura ditugun berrikuntza eta formazioak gureru ekartzeko.

Zelan bideratzen da hezkuntza jardun hori?

Irakasle taldearekin batera, ikuspegi hezitzaile eta inklusibotik abiatuta. Ikasgeletara bideratuta dagoen lana da gurea. Izan ere, aholkularitza zereginetatik aparte, irakasleak ere bagara, eta gelan zein bakarkako saioetan ere badihardugu ikasle talde malguetan. Beraz, ikaslearen aniztasuna oinarri izanda, eta pertsonaren alde emozional eta soziala kontuan hartuz, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan azaltzen diren egoera anitzei erantzuna emateko laguntza bideratzen eta egoerei aurre hartzen saiatzen gara.

Horretarako ikaslea erdigunean jarri behar da.

Horixe. Lehenengo eta behin, ikaslea bere osotasunean ezagutzen saiatzen gara. Guztiok gara desberdinak. Izan ikasteko gaitasunetan, interesetan, motibazioetan, balioetan, jarreraren edo portaeretan, desberdinak gara. Horregatik, gure jo puntua aniztasunaren trataeran dago, eta horretarako inklusioaren

printzipioa jarraitzen dugu. Azken finean, prozesu honek bi norantza ditu: ikaslea eskolara egokitzeaz gain, eskolak ere ahalegina egin behar baitu bere baitan hartzen dituen ikasle taldeei erantzuteko.

“Ikaslea eskolara egokitzeaz gain, eskolak ere ahalegina egin behar du bere baitan hartzen dituen ikasle taldeei erantzuteko.”

Zein da erantzuteko modu hori?

Guk esku-hartze prebentiboaren alde egiten dugu. Zenbait egoerei aurre hartzen saiatzen gara eta etorkizunean sor daitezkeen hutsuneak desagerrarazi edo haien eragina ahultzea da helburua.

Zer tresna duzue lan hori egiteko?

Gogoeta, ikerketa, ekintza, malgutasuna eta sormena dira gure lanabesak. Orientazio eta aholkularitza lana, funtsean, sukalde lana da. Hezkuntza-osagai desberdinak uztartuz, ikasleen eskura jartzen ditugu egunerokotasunari eraginkortasunez erantzuteko lan tresnak. Azken helburua eta nagusia, beti, ikasleen ongizatea da.



Gorputza eta hezkuntza

Gorputza natural mugitzeko egin dago, berezkoa du mugitzea eta berez dakarren jokabide bat da. Gorputz hezkuntza gorputzaren ezagutza eta motrizitate-gaitasunak garatzeaz gain, norberaren bizi kalitatea hobetzeko ohitura eta jokaera osasuntsuak barneratzen laguntzen duen arloa da.

Sarritan bigarren mailako arlotzat hartu izan bada ere, Kuruziagako irakasleek argi dute ez dela horrela. “Gure arloan ikasleek gorputz jarrera eta portaerak azaleratzen dituzte. Elkarrekintzan zein taldean aritu, norbera da diharduena. Norbere emozioak, sentimenduak, auto-irudia, konfiantza,... denak azaleratzen dira. Beraz, ikaslearen garapen pertsonalean duen eragina kontuan hartuta, gorputz hezkuntzaren balioa aldarrikatu behar dela uste dugu.”

Giza dimentsio edo talde harremanera begira, jolas antolatuari eta arauen barneratzeari ere garrantzi handia ematen diote. “Zenbait jarduerak eurokin dakarte arau edo prozedura batzuk ikasi eta erabili beharra. Beste batzuk, aldiz, norberak garatu eta barneratu behar ditu taldean funtzionatu ahal izateko. Gorputz hezkuntzak guzti horren heziketan laguntzen du”.

Lehen Hezkuntza: gorputzaren ezagutza eta ludikotasuna

Lehen hezkuntzan fokua nortasunean, emozioetan eta mugimenduan jartzen da. Ikasleari bere gorputza ezagutzen laguntzea da helburua. Era berean, arloaren izaera ludikoan egiten da indar.

“Haurrek berezko joera eta premia dute jolaserako, mugitzeko eta gorputzarekin esperimentatzeko. Norberaren gaitasun eta

trebeziak behin eta berriz frogatu eta muga berriak gainditzen joateko. Mugimendua eta gorputzaren bitartez lortutakoak isla zuzena du autoestimuan eta nortasunean”.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: jarduera fisikoa eta aisia

Adinean aurrera joan ahala bestelako helburuak gehitzen doaz: “Norbere gorputzaren kontzientzia hartzea; jarduera fisikoa neurritz eta maiz egitearen garrantzia balioestea; norberarekiko nahiz besteekiko erantzukizuneko jarrera azaltzen ikastea...”. Bakarka zein lankidetzan lantzen dira helburuok. Batzuk ikastolan bertan, eta beste batzuk, ostera, kanpora jotzea eskatzen dute: mendi irteerak, uretako ekintzak, arrauna, piragua, surfa... Bigarren zikloan aisialdira begira ere egiten da lan, euren aisialdia antolatzen lagungarri izan daitezkeen esperientziak eskainiz.

Balioak azpimarratzen

Garrantzitsuena ez da jarduera fisiko zehatz batean nabarmentzea. Benetan balio duena norberak egiten duen ahalegina da, jardueran saiatu eta ausartzea, eta ondoren erabakiak hartzeko gai izatea. “Azken finean, jarduera fisikoa aitzaki hartuta pertsonaren garapena aberasten duten beste balio batzuk eta oinarrizko kompetentziak garatzeko bide bat ere bada gorputz hezkuntza”.

***Argazkia:** Gorputz hezkuntzako irakasle taldea: Nekane Zubizarreta (DBH), Ibon Ortueta (LH), Maite Arrizabalaga (LH-argazkian falta) eta Zuriñe Orue-Mazaga (LH eta DBH).



Artezkaritzza Batzordea

Kurutziaga Ikastola gurasoen kooperatiba da. Batzar Nagusia da kooperatibako kideen bilgune nagusia eta beronek aukeratu eta onartzen du kooperatibaren kudeaketa organo gorena den Artezkaritzza Batzordea. Gaur egun bederatzi gurasok eta zuzendari gerenteak (bozka eskubiderik gabe) osatzen dute Artezkaritzza batzordea.

“Kurutziaga Ikastola, gurasoen kooperatiba da, herri onura izaera duena, gizarte titularitatekoa, irabazi asmorik gabekoa, herrikoia, eta herriaren ekimenetik sortu dena”. Halaxe dio Kurutziaga Ikastolaren izaera biltzen duen aurkezpen esaldiak. Kooperatiba eta herrikoia den neurrian berau osatzen duten gurasoen parte-hartzea ezinbestekoa du, kooperatibisten konpromisoa, alegia.

Kideen hautaketa eta karguaren iraupena

Arestian aipatu legez, bazkide guztiek osatzen duten Batzar Nagusiari dagokio Artezkaritzza Batzordeko kideak hautatu eta izendatzea. 2018ko abenduan egindako Batzar Nagusiaren ostetik Artezkaritzza Batzorderako hautatutako bazkideek lau urteko konpromisoa hartzen dute bertako kide izateko. Betiere epe horretan kooperatibako bazkide izateari uzten ez badiote (alabak edo semeak Kurutziagan bere eskola ibilbidea amaitzean gertatzen dena, adibidez). Lau urteko ardura betetzen joan ahala, bi urterik behin Artezkaritzza Batzordearen erdia berriztuko da (lau kide batean eta bost hurrengoan).

Lan lerro nagusiak eta Plan Estrategikoa

Artezkaritzza Batzordearen funtzioa ikastolaren lan-lerro nagusiak zehaztu eta hauen jarraipena egitea da. Arlo pedagogikoa profesionalen ardura da, ez artezkaritzako kideena eta lan-taldearekiko konfiantza erabatekoa da. Puntu hau azpimarratu beharra ikusten da Artezkaritzako kideena,

aldetik, sarritan bertan parte-hartzeko gonbita egiterakoan alor pedagogikoaren ezezagutza izaten baita kezka nagusietakoa.

Gaur egun, Artezkaritzza Batzordeak esku artean duen zeregin handiena datozen lau urteotarako Plan Estrategikoa diseinatzea da. Zeregin horretan ikastolako profesionalak osatzen duten Zuzendaritza batzordearekin dihardu eskuz-esku. Gurasoekin eta profesionalekin egi dira bilera-tailerrak eta Plan Estrategikoa ekaineko ez-ohiko batzarrean aurkeztea da asmoa.

“Artezkaritzza Batzordearen funtzioa ikastolaren lan-lerro nagusiak zehaztu eta hauen jarraipena egitea da. Arlo pedagogikoa profesionalen ardura da.”

Ekaineko ez-ohiko batzarrean artezkaritzako zenbait kargu ere berritu beharko dira, tartean Kurutziaga Ikastolako presidentearena. Horregatik, gaur egungo kideen aldetik deia luzatu gura diete guraso guztiei batzarrean parte hartu eta, zergatik ez, euren buruak aurkeztu ditzaten Artezkaritzza Batzordeko kide izateko. Ardura bat da, baina baita ikasbide aparta ere.

***Argazkian ezkerretik eskumara:** Izaskun Iturriotz, Alex Ortuzar-idazkaria-, Jon Elorrieta-Lehendakaria-, Berezi Bilbao, Oskar Alberdi, Alaitz Atxurra, Joseba Urretabizkaia -diruzaina- eta Urko Rodríguez (falta dira: Eli Imaz eta Iker Perez de Arenaza -lehendakarioidea-).

“Ekainean aurkeztuko dugu datozen lau urteetarako plan estrategikoa”

Jon Elorrieta Bustinza
Kuruziaga Ikastolako presidentea



Parte-hartzearen garrantzia

Jon Elorrieta iurretarra da Kuruziaga Ikastolako presidentea. Garai ezberdinetan, bi biderrez izan da Artezkaritza Batzordeko kide. Ekaineko ez-ohiko batzar nagusian kargua lagako du ikastolako guraso izateari utziko baitio semearen Kuruziagako eskola ibilbidea amaitzearekin batera. Sasoi batean ikasle moduan eta geroago presidentetzan, Kuruziaga ikastolaren komunitateko kide izatearen balioa aldarrikatu du beti.

Ekainean bi urte beteko dituzu Kuruziagako presidente karguan. Zelako esperientzia izan da?

Esperientzia aberasgarria oso. Orain hamar bat urte ere izan nintzen Artezkaritza Batzordeko kide eta itzuli naizen honetan nire usteak berretsi egin dira. Beti esan izan dut modu batera edo bestera guraso guztiok izan beharko genukeela noizbait halako ardura bat. Eta ez bakarrik kooperatiba garelako. Uste dut ikastolaren beraren izaeran dagoen altxor bat dela gurasoen konpromisoa, zaindu eta sustatu beharrekoa.

Ikastolari dagokionez mugituak izan dira azkeneko bi urteok.

Ibilaldiaren antolakuntzan aritu nintzen eta haren ostetik sartu nintzen berriz Artezkaritzan. Pentsa, orduetik Haur Hezkuntzako eraikina berritu da, jolas-eremuko berritze lanak egin dira, 50. urteurreneko ospakizunak izan dira... Aurreko urteetan beste hainbat lagunek landutako proiektuak izan dira batzuk, eta ez nago ni ezelako dominarik paparreratzeko. Benetan ardura duena da ikastolaren proiektua sendotu eta indartu egin dela denbora guzti honetan.

Datozen lau urteotarako Plan Estrategikoa lantzen ari zarete joan diren hilabeteotan.

Bai. Artezkaritzaren eta Zuzendaritzaren artean ari gara Plan Estrategikoaren diseinua aurrera eroaten. Langile guztiak izan dute parte hartzeko aukera, baita gurasoek ere. Hausnarketa fase bat ireki genuen hasieran. Horren ostetik erronkak eta lerro estategikoak definitu ditugu, eta orain gauzatu beharreko ekintzekin ari gara. Bere denbora eskatzen duen

prozesua da, baina ezinbestekoa. Gainera, harrokeriarik barik esan dezakegu Kuruziaga Ikastola momentu on batean dagoela begirada altxatu eta etorkizunera begiratzeko. Gure asmoa da ekainean komunitate osoari aurkeztea Plan Estrategikoa.

“Parte-hartzea eskubidea eta betebeharra ere bada. Horretarako formula eta kanal egokiak aurkitzean egongo da gure proiektuaren balio erantsia.”

Gurasoen parte-hartzeak ikastolaren proiektuan duen garrantzia azpimarratu izan duzu beti.

Hor dago gure indarra. Artezkaritzan ere ikusi dut hori. Jendeak pentsatzen du holako edo halako perfila behar dela bertan parte hartzeko, eta ez da horrela. Zenbat eta ugariagoa, anitzagoa, hobeto. Guztiok balio dugu. Eta gainera, azpimarratu nahiko nuke parte-hartzea gure eskubidea izateaz gainera, betebeharra ere badela. Parte-hartze hori bideratzeko formula eta kanal egokiak aurkitzean egongo da gure proiektuaren balio erantsia.

Amaitu da zure ibilbidea Kuruziaga Ikastolan.

Modu batean bai, baina beste batean ez. Gauza bat da ez izatea gehiago kooperatibista, eta beste bat da norberak Kuruziaga ikastolarekin duen lotura. Hori barruan daroazun zerbait da. Beti egongo da hor.



**KURUTZIAGA
IKASTOLA**

BIZITZEKO HEZI

GURE HEZKUNTZA PROIEKTUA

Ikaslea ardatz

Euskara eta Euskal Kultura

Eleaniztasuna

Genero berdintasuna

Aniztasuna

Natura

www.kurutziagaikastola.eus



**KURUTZIAGA
IKASTOLA
BIZITZEKO HEZI**

